Gaur aitari esan diot buruko kalkulua ez zaidala gustatzen, ezertarako balio ez duelako. Berak erantzun dit:

-Ziur zaude ? Begira, zenbaki hau asmatzen baduzu, beste hainbeste kromo oparituko dizkizut:

-Berrogeita hemezortzi baino handiagoa da.

-Hirurogeita bat baino txikiagoa

-Ez da hirurogei.

-Zein da?

-Asmatu dut! Kromo horiekin, albumeko zenbat orrialde beteko ditut?

- **Zer zenbaki da?**

  A. 58

  B. 57

  C. 59

  D. 60

  E. 61

- **Zer datu falta zait albumeko zenbat orri beteko ditudan jakin ahal izateko?**

  A. Sobre bakoitzean zenbat kromo dauden.

  B. Orrialde bakoitzean zenbat kromo sartzen diren.

  C. Zenbat kromo dituen bildumak.

  D. Zenbat kromo izango ditudan guztira.

  E. Zenbat kromo falta diren albumean.

- **Zure ustez, zergatik proposatzen dio aitak jolas hau semeari?**

  A. Matematika gehiago gustatzeko.

  B. Haserretzeko zenbatzen ez dakielako.

  C. Alaia delako eta txisteak gustatzen zaizkiolako.

  D. Bilduma ez bukatzea nahi duelako.

  E. Buruzko kalkulua ez egiteko.

LIVEWORKSHEETS